



2010-2012 LAN HITZARMENA

Hau ez da STEE-EILASen hitzarmena; hau ez da Irakaskuntza Publikoak behar duen hitzarmena

1. SARRERA

Eskuartean duzun Lan Hitzarmen hau 2010eko ekainean sinatu zuten Hezkuntza Sailak, CCOO eta UGTk, eta honek arautuko ditu EAeko unibertsitatez kanpoko irakasle lan-baldintzak 2012ra arte. STEE-EILASetik askotan adierazi dugun moduan, sinadura hori berri txarra izan da irakasleontzat bi arrazoiengatik:

- gure **lan-baldintzetan aurrerapen nabarmenik ez** dakarrelako, baina bai atzera pausu larri batzuk
- irakaskuntza publikoan eguneroko lanean beharrezkoak ditugun **baliabideak bermatzen ez** direlako

Gainera, sinatzaileek sektoreko **gehiengo sindikalaren oposizioarekin** onartu dute Lan Hitzarmen hau, 2007an egin zuten moduan. Bitxia bada ere, 2007ko CCOOren ordezkari sindikal oso esanguratsuak 2010ean mahaiaren beste aldean aurkitu ditugu, Administrazioan. Susmo txarrak pizteko arrazoiak bagenituen eta hala izan da: 2007an hasitako bide okerrari jarraipena eman zaio hierarkizazioa bultzatuz, irakasle ordezkioen egoera kaltetuz, baliabideetan erantzun eskasa ...

Lan Hitzarmenaren prozesua eta edukia ulertzeko, beharrezkoa zaigu atzera egitea, 2009ko azaroan eta abenduan sinatu ziren hitzarmenak ezagutzeko:

2. LAKUAKO MAHAJETAKO AKORDIOAK

Gure Lan Hitzarmena negoziatu baino lehen, 2009ko neguan, Lakuan bi lan-akordio hartu ziren (guretzat eta Eusko Jaurlaritzako beste sektore guztientzat). Gure Lan Hitzarmena 2010eko ekainean sinatu dutenek han adostutakoaren azpitiko erabakiak hartu dituzte, jasota zegoen horretan atzera joanez; ikus dezagun:

- a) **EPE deialdiak:** Han gutxieneko kopurua (1200 urteko) zehaztu zen eta jubilazioagatiko bakanteak gehitzen ziren (500en bat urteko), baina gure Lan Hitzarmenean bakarrik lehen 1200 bermatzen dira eta bestea Batzorde parekidearen esku uzten da; zalantzak daude, beraz, urteko 1700 plaza izango diren.
- b) **Baimenak eta lizentziak:** Honetan aldaketarik ez da egon, Lakuan sinatu zena zuzenean sartu da gure Lan Hitzarmenean; horregatik hobekuntza batzuk badaude: 3tik 4 hilabetera norbere eginbeharretarako baimena, edoskitze baimena 12 hilabetera, aitatasun lizentzia 21 egunekoa, gaixotasun oso larriagatiko murrizketa ...
- c) **Soldata igoera:** Lakuako mahaiaren sinatu zen soldata igoera (0,3) bertan behera geratu da gure Lan Hitzarmenean; are gehiago, soldata Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuen eta erabaki legalen arabera uzten du (70. artikulua)!
- d) **Aurretiko erretiroagatiko sariak:** Gure Lan Hitzarmenean adostu dituzten erretiro-sariak Lakuako Mahaiaren funtzionario guztiontzat onartu zirenenaren azpitik daude; horrela, jubilatzean, irakasleek bi hilabeteri dagokion kantitatea galduko dute (bi hilabetetako soldata osoa). Inork ez du zergatia azaldu!

3. LAN HITZARMEN HONEN ALDERIK BELTZENAK

Kontua, halere, ez da bakarrik aurretiko akordio horiek guretzat gutxitu egin zirela, beste arazo larri batzuk ere ikusten ditugu STEE-EILASen:



Plantillak eta baliabideak: Urteetako irizpideetan aldaketak daude, eragin desberdinetakoak; lehen hezkuntzan 2010eko eskola zuzendarien mobilizazioak ondorioz latzenak -ez guztiak- geldiarazi zituen arren; murrizketak ere badaude bigarren hezkuntzako, batxilergoko eta lanbide heziketako bikoizketetan eta laguntzetan. Honetaz bi ohar:

- ✓ Denok nabaritzen dugu eskolan **lan zama pilatzen** jarraitzen dugula eta aurrera egiteko baliabide gehiago behar ditugula (aniztasunari egoki erantzuteko, bizikidetza lantzeko, proiektuak aurrera eramateko, hobekuntza didaktikoa bideratzeko...).
- ✓ Plantillak zehazteko garaian **irizpideak aldatzeko ahalmena berarentzat gordetzen du administrazioak**. Ez du inolako konpromiso irmorik nahi, eskuak libre nahi ditu, ikastetxeen eta sindikatuen eskumenen kalterako, hauek era nabarmenean mugatuz.

Diru-sariak eta hierarkizazioa: Eredu aldaketa iragartzen du Lan Hitzarmen honek: seiurtekoen kapitalizazio sistemarekin amaitzen da, nahiz eta emaitza onak ekarri dituen guztiontzat (sistema horrekin lortua genuen guztiok, ordeko zein funtzionario, laugarren seiurtekora artekoa kobratzea). Oraingo Lan Hitzarmenean irakasle-karrerari lotuko zaio prozedura (funtzionarioentzat bakarrik, beraz), sinatzaileek negoziatuko duten moduan. Nork uste du hezkuntza kalitatea indartuko dela gure arteko mailakatzea areagotuz, hierarkiak bultzatuz eta soldata desberdintasunak ezarriz? Ez da hori STEE-EILASen eredia, inondik inora.

Ordezkapenak: Lan Hitzarmen honetan ordezkapen gehienak betetzeko egun bat gehiagoko epea luzatu dute. Hori gutxi balitz, ordezkapenak lehen egunetik ez betetzeko bidea ireki dute, ikastetxeetan egoera oso zaila sortuz eta irakasleon lan zama handituz. Aldaketa onartezinak dira!

IRALE: Prestakuntza eskaintza ahuldu dute kantitatean eta kalitatean, R300, R400 eta R600 ikastaroak bereziki zigortuz (kopuru murrizagoak, liberazio denbora motzagoak...). Baldintzak okertzen dira: nori eta zergatik interesatzen zaio IRALE ahulago bat?

Ordezkoak: Honen guztiaren ondorioz, ordezkoen egoera askoz kaskarragoa da: lan gutxiago dago ordezkoentzat, seiurtekoen kapitalizazioa galdu da ... Izan ere, murrizketa desberdinen eragina nabarmen pairatu da kolektibo honetan, prekaritatea handitu baita, noiz eta soldatak murrizten diren garaian.

Beste premiazko kontu askotan Lan Hitzarmen honek ez dakar ezer: 55 urtetik gorakoentzako eskola orduen murrizketa, behar berezien erantzuna, interinoen estabilitatea, guztiontzako erretiro hartzeko aukera berdinak ...

4. AMAIERA

Arrazoiak baditugu Lan Hitzarmen hau arbuiatzeko eta horregatik bere ondorioz latzenak salatzen jarraituko dugu. Mobilizazioetan eta bereziki 2010eko maiatzaren 25eko greba arrakastatsuan argi adierazi genuen langileok eta eskolek zer behar duten; langileon ordezkariaren gehiengoa baztertzeko nekez egingo da aurrera.

Ez ditugu inondik ikusten Eskola Publikoa indartuko dituzten neurriak, eta bai ahalgudadean jarriko dituzten erabakiak. Eskola Publikoak eta bertan lan egiten dugunok zerbait hobea merezi dugu.



3. LOS CONTENIDOS MÁS CRITICABLES DE ESTE ACUERDO

No se trata, solamente, de que se retroceda respecto a lo que ya se había avanzado en los acuerdos de Lakua, sino que además hay otros elementos muy preocupantes, que desde STEE-EILAS queremos señalar:

Recursos y plantillas: Han cambiado los criterios, con diversos efectos; en Infantil y Primaria los efectos más terribles de los recortes –que no todos- se frenaron con la movilización de las direcciones de 2010; en Secundaria hay recortes en las condiciones para desdobles o en las horas en ESO, Bachillerato y FP. Dos comentarios:

- ✓ Seguimos viviendo en los centros una **acumulación de carga de trabajo** y la necesidad de mayores recursos para responder a las necesidades es evidente (responder a la pluralidad del alumnado, trabajar la convivencia, llevar proyectos adelante, implantar mejoras didácticas...).
- ✓ A la hora de definir plantillas, **la administración se reserva la facultad de cambiar los criterios.** No quiere ningún compromiso firme, sino las manos libres, con lo que centros y sindicatos quedamos seriamente limitados.

Sueldos y jerarquización: El Acuerdo Laboral anuncia un cambio de modelo: se acaba con el sistema de capitalización de sexenios, que ha supuesto una importante mejora para todas y todos (todo el profesorado, funcionario o interino, cobraba lo correspondiente a los sexenios hasta una parte del cuarto sexenio). En el Acuerdo Laboral que han firmado se establece que irá unido a la implantación de la carrera docente (sólo para funcionariado) en los términos que establezcan los firmantes en la Mesa Paritaria. ¿Quién piensa que se mejorará la calidad de la educación con la clasificación por grados, poniendo en valor la jerarquía e impulsando las diferencias salariales según status? No es ese el modelo de STEE-EILAS, en absoluto.

Sustituciones: Ya sabíamos que en este Acuerdo Laboral se prolongaba un día más el plazo para cubrir la mayoría de las sustituciones. Pero además han acabado con una práctica de años no cubriéndolas desde el primer día, complicando el funcionamiento de los centros y aumentando nuestra carga de trabajo. ¡Son recortes inaceptables!

IRALE: Han debilitado la oferta, en cantidad y en calidad, perjudicando especialmente a los R300, R400 y R600 (cupos menores, tiempo de liberación inferior...). Están empeorando las condiciones: ¿a quién y por qué le interesa un IRALE debilitado?

Profesorado interino: Como consecuencia de todo esto, ha empeorado la situación de este colectivo: hay menos trabajo, se ha acabado con la capitalización de sexenios... De hecho, son los y las profesoras interinas quienes están sufriendo especialmente la precariedad, a lo que se añade el recorte salarial.

En otros asuntos urgentes este Acuerdo Laboral no aporta nada: reducción de horario lectivo para mayores de 55 años, respuesta a necesidades educativas, igualdad en el acceso a la jubilación...

4. EN CONCLUSIÓN

Tenemos muchos motivos para rechazar este Acuerdo Laboral, y por eso lo criticamos. Los y las trabajadoras ya hemos expresado con claridad en las movilizaciones, y especialmente en la exitosa huelga del 25 de mayo, que necesitamos y que necesita la enseñanza pública. Conviene recordar que será difícil avanzar dejando de lado sistemáticamente a la mayoría de la representación sindical del sector.

No vemos por ningún lado medidas que fortalezcan a la Escuela Pública, y sí, en cambio decisiones que la debilitan. En STEE-EILAS pensamos que la Escuela Pública y su profesorado merecemos un acuerdo laboral sustancialmente mejor.



ACUERDO LABORAL 2010-2012

Este no es el acuerdo de STEE-ILAS;

este no es el acuerdo que necesita la Enseñanza Pública

1. INTRODUCCIÓN

Este Acuerdo Laboral, que firmaron en junio de 2010 CCOO, UGT y el Dep. de Educación del Gobierno Vasco regulará las condiciones de trabajo del profesorado funcionario no universitario de la CAV hasta 2012. Como reiteradamente hemos señalado desde STEE-ILAS, esa firma fue una mala noticia, y lo fue por dos razones:

- Porque además de no suponer una mejora reseñable de nuestras condiciones laborales, **trae consigo algunos retrocesos importantes.**
- Porque **no nos asegura los recursos necesarios** para el trabajo diario en el sistema público de enseñanza.

Además, este acuerdo se firmó **con la oposición de la mayoría sindical del sector**, como en 2007. Curiosamente, quienes entonces eran señalados representantes de CCOO, en 2010 se encontraban al otro lado de la mesa en importantes puestos de la Administración educativa. Había motivos para la desconfianza, y la realidad los confirmó; se ha continuado por el mal camino que arrancó en 2007: jerarquización innecesaria, empeoramiento de las condiciones del personal interino, recursos insuficientes para las necesidades de los centros...

Para entender los contenidos de este Acuerdo Laboral es necesario retrotraernos a los acuerdos que se firmaron en Lakua a finales de 2009 para todo el funcionariado dependiente del Gobierno Vasco:

2. LOS ACUERDOS DE LAS MESAS DE LAKUA

Antes de la negociación de este convenio, se firmaron en noviembre y diciembre de 2009 dos acuerdos (para nuestro sector y para los demás sectores dependientes del Gobierno Vasco). En el Acuerdo Laboral de Educación de junio de 2010 se empeoraron algunas de las condiciones acordadas en diciembre de 2009; veamos:

- Convocatorias de OPE:** Se había establecido para Educación un cupo mínimo de 1200 plazas a ofertar anualmente, a las que habría que añadir unas 500 vacantes más por crecimiento vegetativo, pero en este Acuerdo Laboral sólo se aseguran 1200, con las posibles ampliaciones en manos de la Comisión Paritaria; quedamos a la espera de ver si finalmente las convocatorias anuales llegan a las 1700 plazas.
- Permisos y licencias:** En este apartado se ha respetado lo establecido en los acuerdos de Lakua, y algunas mejoras se han recogido también en este Acuerdo Laboral: de 3 a 4 meses el permiso por asuntos propios, lactancia hasta 12 meses, paternidad 21 días, reducción de jornada por enfermedad muy grave...
- Subida de sueldo:** La que se acordó en la mesa de Lakua (0,3%) no se ha recogido en este Acuerdo, que además deja nuestros sueldos en manos de la Administración y lo que ésta establezca! (artículo 70)
- Primas por jubilación anticipada:** Las primas por jubilación de este Acuerdo Laboral están por debajo de las que apenas unos meses antes se habían establecido en la mesa de Lakua para todo el funcionariado del Gobierno Vasco: así, las y los profesores perderemos las cantidades correspondientes a la paga completa de dos meses. ¡Alguien debería explicar porque nuestras primas por jubilación anticipada son ahora más bajas!